

“Euskal Kulturgintzaren Transmisioa” graduondoko ikastaroa

2007/02/13

Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateak eta Arteola elkarteak aurkeztu berri dute **"Euskal Kulturgintzaren Transmisioa"** graduondoko ikastaroa. Mintegi esperientzia bat izango da aurrekaririk gabea. Izan ere, euskal kulturgintzak XX. mendean izandako esperientzia hartuko du abiapuntu, bihar-etziko kultura arduradunei transmititzeko asmo sendoarekin.

Oinarritzko kezak

Eskaintza horren oinarrian hainbat kezka daude:

- XXI. mendeko desafio globalen aroan, gure artean kulturgintzari buruzko esperientzia, gogoeta eta praktiken biltze, sistematizazio eta transmisio-lanik eza.
- Gure kulturgintza hezkuntzan egokiago txertatzeko beharra eta horretarako irizpide, esperientzia eta formatzailerik falta. Era berean, kulturgintzaren inguruko gogoeta-irizpiderik eta formaziorik eza gure elkarteetako, mugimenduetako, udaletako, hedabideetako eta erakundeetako eragileetan.

Helburuak

Ikastaroak helburua du euskal kulturgintzari buruzko jakintza barreiatua corpus batean biltzea eta belaunaldi gazteei transmititzea. Bilatzen du, halaber, formazio multifokala eta praktikoa egitea euskal kulturgintzak dituen desafioen aurrean. Hori guztia arituek eta adituek emanda.

Formazioaren eduki-arloak

Formazioaren edukia hiru bloketan banatzen da:

1. Formazio teorikoa: adituak mintzo

- Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarriak.
- Egungo gizarte aldaketak eta kulturgintza.
- Egungo teknologia aldaketak eta kulturgintza.
- XXI. mendeko egoeran euskal izaeraz gogoeta.
- Kulturari buruzko diskurtso desberdinak euskal komunitatearen historian
- Euskal kulturgintza aurrera begira
 - Kulturgintzaren hezkuntza-transmisioa
 - Kulturgintza, hedabideak eta komunikazio-teknologiak
 - Sorkuntza eta hedapen estrategiak

2. Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo

- Kantagintza. Bideak eta norabideak
- Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua.
- Bertsolaritza. Hogei urteko estrategia mamitua.
- Beste hainbat kultur bide. Esperientziak eta ortzimugak.
- Oinarri gintza. Egitura-esperientziak.

3. Oldozpena eta ekoizpena: oro mintzo

- Euskal kulturgintzaren garabideak: ortzimugak, hezkuntza-transmisioa eta hedapen estrategiak.
- Proiektua, hiruko taldeetan.

Irakasleak

Lehenengo aldiz, euskal kulturaren transmisioa maila akademikora ekarriko du ikastaro honek. Irakasleen artean, bestalde, honako izen adierazgarriak aurkituko ditugu: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Bernardo



Huhezi - Dorleta eraikina

Atxaga, Jose Mari Sors, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Joseba Zulaika, Juan Antonio Urbeltz, Jose Angel Irigaray eta Fermin Muguruza, besteak beste.

Informazio teknikoa

Izen ematea: 2007ko otsailaren 1etik apirilaren 30era.

Matrikula: 2007ko maiatzaren 1etik 15era. Plaza liberik egonez gero, uztailean beste epealdi bat zabalduko da matrikulaziorako.

Hasiera: 2007ko irailean

Graduondokoaren Ordutegia/egutegia: astearte arratsaldetan.

Zenbatekoa: 1.900 €

Informaziorako eta izena-emateko telefonoa: 943 714 157